



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/11/30

Aldundiak zezeilean lizitauko dau Zugaztietako golf zelaiaren ustiapena

Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko diputatuak gaur goizean Gernikako Batzarretxean egin dan kontroleko saioan iragarri dauenez, bere sailak, Azpiegiturak soziedadearen bitartez, zezeilean lizitauko dau Zugaztietako Meaztegi Golfaren kudeaketea. Gaur egun indarrean dagon kontratua bagilean amaituko da, hamar urteko emakidaren ostean, eta Aldundiaren asmoa, esleipena lortuko dauen enpresa barriak bere beharra “garagarriaren letik aurrera” hastea da, kontratuan aldaketa batzuk sartuta.

Diputatuak baieztu dauenez, baldintzen pleguan aldaketak sartzea dabiz aztertzen, zelaiaren “kudeaketa eredu barria bultzatzea”, “toki eta nazinoarte mailan eragina eta proiektzioa daben lehiaketetako sare profesioaletan sartzea”, “jarduera ludiko-turistikoak sartzea” jokalari barriak erakarteko elementu moduan, zelaian gauzatu beharreko “lankidetza publiko-pribadurako ekimen barriak” edo “eskolengana eta gazteriarengana gehiago hurbiltzea”, besteak beste.

Pradalesek, adierazpenok, Bizkaiko Talde Popularrak, Ansareo enpreseagaz sinatuta dagon kontratuaren azkeneko sei hilebete honeei aurre egiteko Aldundiak hartu gura ebazan politiken gainean egindako itaun bati erantzunez egin ditu. Jesús Isasi popularrak adierazo dauenez, kudeaketa hori dala eta, zelaia bazkideak galduz joan da azken urteetan “3.000 bazkide izatetik 1.000 izatera pasau da”, eta mantentze-lanen baldintzak “ez dira bat be egokiak izan”.

Horri jagokonez, Pradalesek gaur egun indarrean dagon baldintzen pleguko artikulua batzuk aitatu ditu, eta esan dau Azpiegiturak erakundeak, instalazioen inbentarioa egin ostean, aurkitzen dituan akatsak “konpontzeko” eskatuko deusola enpresari. Konpontzen ez badira, Aldundiak “1.288.000 euroko” abala gauzatuko dau.

BIDAIA LONDONERA “UDABARRIAN”

PP taldeak, Erresuma Batuak Europar Batasunetik urteteak sortu daikezan “aukerak baliatzen” ahalegintzeko hartu behar dituan neurrien gainean Aldundiari egindako itaunari erantzunez, Unai Rementeria Bizkaiko ahaldun nagusiak iragarri dau “datorren udabarrian” Londonera egingo dan bisita baten buru izateko asmoa dauela, ugarteetan edo Euskadin ezarrita dagozan enpresa britainiarrakaz Lurralde mailako estrategia konpartitzeko eta “automozinoa, aeronautikea, makina-erremintea edo IKTak” moduko sektore estrategikoak bultzatzeko.

Ahaldun nagusiak inbertsinoak erakarteko estrategia lantzearen aldeko apustua egin dau, baina ez “Brexitean pentsauta” bakarrik, edozein herrialdetik datorren “edozein



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

inbertsino” erakarteko baino. Gainera, Bizkaia ez dala “ low cost lurraldea” bilakatu behar azpimarratu dau, eta ez dauela “zeinek zergak gehiago jatsi enkante” batean parte hartuko, inbertsinoak erakarteko, Madrilgo Erkidegoa bultzatzen ari dana aitatu.

Javier Ruiz PP taldeak Batzar Nagusietan dauen bozeroalea, “beste lurraldeek eskintzen dabezanak baino hobeak izango diran abantailak eta pizgarriak” eskintzearen alde agertu da, inbertsinoak erakarteko, Erresuma Batua Europar Batasunetik joatean gertatu daitekezan “deslokalizazioak” “jasoteko lurraldea izateko enkantearen” aurrean.

Unai Rementeriak esan dau ez dauela sinisten “Brexitak dala eta bakarrik martxan jarriko diran estrategietan”, beharrezkoa dala “ibilpide orri bat” diseinetea, “Brexitak gertatzen bada, enpresa batzuek dagozan lekua aldatuko dabela” kontuan izanda, baina ez “Brexitan bakarrik pentsauta, hegazti harrapakariak bagina moduan”. Holan, Doing Business in Biscay estrategian dabilzala beharrean iragarri dau, “estrategia orokorrean”.

Ahaldun Nagusiak esan dauenez, hainbat ardatzetan jardutea dago aurreikusita, dagozan industriak handitzeko edo industria barriak ezarteko lur-zoruak eskintzean, edo Bizkaia “enpresa txikiarentzat eta ertainarentzat lurralde atsegina” bilakatuko dauen Pymeland estrategian, “azken arlo horretan zer edo zer desbardina eta garrantzitsua eskintzeko gai garalako”.

Holan, Rementeriak gogoratu dau “finantza arloko hub” bat bultzateko beharrean dabilzala, “barrikuntzarako funtsakaz, baina gure enpresek inbertitzeko, handitzeko, daben beharrean, enpresen arteko lankidetzan eta nazinoartekotzean pentsauta”. Gainera, gogoratu dauenez, “administrazio arloko burokrazia baztertze” estrategian be egingo da behar aldi berean.

KARRANTZAKO MINDA

Batzar Nagusietako osoko Bilkurak EH Bildu, Podemos Bizkaia eta PP taldeen ekimenak be landu ditu, porrot egin eban mindategiaren proiektua dala eta jarraitzen ari dan epai bidezko prozeduran beteten ari dan jarduketea azaldu daian Aldundiak. Foru Aldundiak 2 milioi euroko laguntzak emon ebazan proiektu hori gauzatzeko.

Aldundia. bere aldetik, Elena Unzueta bozeroaleak esan dauenez, “prozedura horretan parte hartzen ari da”, eta bere “asmo bakarra emondako dirua eta atzerapenezko interesak berreskuratzea da”, horretarako “bide eragingarrienak” erabilia. Gogoratu dauenez, Aldundiak espedientea zabaldu eban 2012ko martian, “emondako diru-laguntzak eta jagokezan atzerapenezko interesak itzultzeko”, eta urte bereko garagarrean “zorraren ziurtagiria” bialdu eutsan konkurtso administratzaileari, eta “agertzeko idazkia” Bilboko Merkataritza arloko Epaitegiari.

Holan, Unzuetak azaldu dauenez, “Aldundia konkurtso prozeduran parte hartzen ari da 2012ko urriaren 8tik, emondako dirua berreskuratze” eta, une honetan, “konkurtso bideagaz be jarraitzen dau, oraindino bukatu barik dagolako”. Gainera, adierazo dauenez, “pauusak emoten jarraitu da” eta 2015eko zezeilean, Aldundiak,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

“konkurtsu prozeduraren kalifikazinoko seigarren sekzinoko parte moduan agertzen dala” adierazoten eban idazkia” aurkeztu eban Bilboko Merkataritza arloko Epaitegiaren aurrean.

Oposizinoak, barriz, ustebako moduan adierazo beharrean konkurtsoan errudun moduan adierazoteko kausegaz bat ez egitea aurpegiratu deuto Aldundiari, holan “auziperatuak euren ondasunakaz erantzun beharko leukelako”. Dirua berreskuratzeko aukerak “handiagoak” izango litzatekez, Javier Ruiz popularrak esan dauenez.

KLAUSULA SOZIAL BARRIEI “AZKENEKO IKUTUAK EMOTEN”

EH Bilduk, Aldundiak, oraindino, 2013an onetsi ziran klausula sozialak apliketan jarraitzen ete dauen gainean egindako itaunari erantzunez, Ibone Bengoetxea Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andreak, klausula horreek apliketari 2015eko zemendian itzi jakola baieztu dau, Epaitegi Gorenak balio barik itzi eta gero, Aldundiak, aurreko epai bat zala eta, aurkeztu eban kasazino helegite baten ostean.

Diputatuak esan dauenez, Aldundiagaz sinatuko diran kontratuetan aplikauko diran klausula barriei “azken ikutuak emoten” dabilz, testua gertatu diran arauzko aldaketetara eta aitatutako epai horretara egokitzeko, eta bertan aldaketa “garrantzitsuak” egongo dira. Aldundiak “arautegi betearazlearen” formulaa aukeratuko dau, eta ez Foru Araua, Arantza Urkaregi EH Bilduko ordezkari bozeroaleak eskatu dauen moduan.

Arauzko aldaketa horretan, foru erakundeak aldaketak sartuko ditu, lan arloko legedia bete ahal izateko, hainbat gairen gaineko hobekuntzak sartuz: “ingurumena, gizonezkoen eta andrazkoen arteko bardintasuna, merkataritza zuzena eta enpresa txikiei eta ertainei eta autonomoei emon behar jaken laguntzea”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
30/11/2016

La Diputación licitará en febrero la explotación del campo de golf de La Arboleda

El diputado foral de Desarrollo Económico y Cohesión Territorial, Imanol Pradales, ha anunciado esta mañana en el pleno de control que se ha celebrado en la Casa de Juntas de Gernika, que su departamento, a través de la sociedad Azpiegiturak, licitará en el mes de febrero la gestión del Meaztegi Golf de La Arboleda. El actual contrato termina en junio, tras diez años de concesión, y la Diputación quiere que la nueva empresa adjudicataria inicie su labor "a partir del 1 de julio" con algunas modificaciones contractuales.

El diputado ha confirmado que están estudiando incorporar cambios en el pliego de condiciones para que la adjudicataria desarrolle "un nuevo modelo de gestión" del campo, "acceso a redes profesionales de competición con impacto y proyección local e internacional", "incorporación de actividades lúdico-turísticas" como elemento de atracción de nuevos jugadores, "nuevas iniciativas de colaboración público-privada" a desarrollar en el campo o un "mayor acercamiento hacia el mundo escolar y la juventud".

El anuncio de Pradales se ha producido en contestación a una interpelación del grupo Popular Vizcaíno sobre las políticas que tenía previsto adoptar la Diputación para afrontar estos últimos seis meses de contrato con la empresa Ansareo. Según el popular Jesús Isasi, en su periodo de gestión, el campo ha ido perdiendo socios en los últimos años "de 3.000 se ha pasado a 1.000" y las condiciones de mantenimiento "han dejado mucho que desear".

A este respecto, Pradales ha sacado a relucir artículos del actual pliego de condiciones y ha asegurado que Azpiegiturak, tras realizar el correspondiente chequeo e inventario de las instalaciones, reclamará a la empresa "subsana" las deficiencias que encuentre. En caso de no hacerlo, la Diputación ejecutará el aval de "1.288.000 euros".

VIAJE A LONDRES "EN PRIMAVERA"

Con motivo de una interpelación del PP sobre las medidas que tiene pensado adoptar el Gobierno foral para tratar de "aprovechar las oportunidades" que genere la salida del Reino Unido de la Unión Europea, el diputado general de Bizkaia, Unai Rementería, ha anunciado en el pleno que tiene previsto encabezar una visita a Londres "la próxima primavera" para compartir la estrategia de Territorio con empresas británicas con implantación en las islas o en Euskadi y fomentar sectores estratégicos como la "automoción, la aeronáutica, la máquina-herramienta o las TIC's".



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El diputado general ha apostado por trabajar en una estrategia para atraer inversiones pero no solo "pensando en el Brexit", sino "para cualquier inversión" procedente de cualquier país. Asimismo, ha remarcado que Bizkaia no debe convertirse en "un territorio low cost" que participe en "una subasta de bajada de impuestos" para atraer inversiones, en referencia a lo que propugna el gobierno de la Comunidad de Madrid.

El portavoz del PP en la Cámara foral, Javier Ruiz, ha apostado por ofrecer "una serie de ventajas y estímulos que sean superiores a otros territorios" para poder atraer inversiones ante la "puja para ser territorio de acogida" de las "deslocalizaciones" que puedan producirse con la marcha del Reino Unido de la UE.

Unai Rementeria ha afirmado que no cree en "estrategias solo ante el Brexit", sino que es preciso diseñar "una hoja de ruta pensando que, si el Brexit se ejecuta, hay empresas que se van a deslocalizar", pero sin "actuar pensando solo en el Brexit como si fuésemos aves de rapiña". De este modo, ha explicado que se está trabajando en la estrategia Doing Business in Biscay en su conjunto.

El diputado general ha indicado que se contempla la actuación en varios ejes, como la puesta en servicio de suelos para la ampliación de industrias existentes o la implantación de nuevas industrias, o la estrategia Pymeland, que convierta a Bizkaia en "un territorio amable pensando en la pequeña y mediana empresa" ya que es "un nicho en el que podemos ofrecer algo diferente e importante".

En este sentido, Rementeria ha recordado que se trabaja en el impulso de un hub financiero, "con fondos de innovación pero pensando en la necesidad de inversión, de crecimiento de nuestras empresas, la colaboración entre empresas, y la internacionalización". Además, ha recordado que está previsto trabajar en una estrategia simultánea de "eliminación de la burocracia administrativa".

KARRANTZAKO MINDA

El pleno de las Juntas Generales de Bizkaia ha tratado también sendas iniciativas de EH Bildu, Podemos Bizkaia y PP para solicitar que la Diputación vizcaína explique su actuación en el procedimiento judicial que se sigue por el fallido proyecto de la planta de purines de Karrantza, en el que la institución foral aportó ayudas por un importe de 2 millones de euros. Los tres grupos junteros han cuestionado que la Diputación se haya personado con el resto de instituciones públicas en el juicio que determinaba la culpabilidad o no del procedimiento concursal.

La Diputación, por su parte, en boca de su portavoz, Elena Unzueta, ha subrayado que "sí está personada" y que su "único interés es recuperar el dinero concedido y los intereses de demora", usando "las vías más efectivas". Según ha recordado, la Diputación inició en marzo de 2012 un expediente para "proceder al reintegro de las subvenciones concedidas más los correspondientes intereses de demora" y en julio de



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ese mismo año remitió al administrador concursal "el certificado de deuda" y al Juzgado Mercantil de Bilbao "escrito de personación".

De este modo, Unzueta ha explicado, "desde el 8 de octubre de 2012 se tiene por personada la Diputación en el procedimiento concursal con el objetivo de recuperar el dinero concedido" y, en este momento, "se sigue en vía concursal, dado que no ha finalizado". Además, ha indicado que "se han continuado dando pasos" y en febrero de 2015 la Diputación presentó en el Juzgado Mercantil de Bilbao "un escrito en el que se persona y se muestra como parte en la sección sexta de calificación del procedimiento concursal", del que se ha producido la vista el mes pasado.

La oposición, en cambio, ha echado en cara a la Diputación el que no se adhiera a la causa para que el concurso sea declarado culpable, y no fortuito, ya que en ese caso "los encausados tendrían que responder con sus bienes". Las posibilidades para recuperar el dinero serían "mayores", según el popular Javier Ruiz.

“ULTIMAN” NUEVAS CLÁUSULAS SOCIALES

En respuesta a una interpelación de EH Bildu sobre si la Diputación está aún aplicando la instrucción de cláusulas sociales aprobadas en el año 2013, la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha confirmado que las mismas se dejaron de aplicar en noviembre de 2015 tras anularlas el Tribunal Supremo, tras estudiar un recurso de casación que interpuso la Diputación por una sentencia anterior.

La diputada ha señalado que "ultiman" unas nuevas cláusulas que se aplicarán en los contratos que se suscriban con la Diputación, para adaptar el texto a los cambios normativos que se han producido y a esta sentencia judicial, y en la que habrá cambios "de calado". La Diputación elegirá la fórmula del "reglamento ejecutivo" y no de una Norma Foral como le pedía la portavoz suplente de EH Bildu Arantza Urkaregi.

En este cambio reglamentario, la institución foral incorporará modificaciones para cumplir con la legislación en materia laboral e introducirá nuevas mejoras referentes a aspectos como el "medio ambiente, la igualdad entre hombres y mujeres, el comercio justo, y el apoyo a pymes y autónomos".